

Euskal Herrian agroekologia lantzen eta bultzatzen duen baserritar eta herritarren sarea gara EHKOLEktiboa.

Gure baserrietatik, eta jendartearekin batera, guztiontzako elikadura osasuntsua eta eskuragarria egitea dugu helburu; lurra, abere eta pertsona guztien errespetuan oinarriturik. Agroekologiaren lanketa teoriko, eta batez ere praktikoa, bultzatzen dugu; herrigintzaren ikuspegitik eta elkarlanetik, gure etxaldeak guztion artean agroekologiaren bidean aurrera joateko.

EKOLOGIKOA

Europako araudia + laborariek
ezarritako konpromisoak
biologique
ecológico



GERTUKOA

Euskal Herrikoa eta inguru hurbilekoa
de proximité
cercano



GIZA NEURRIKO ETXALDEAK

lan baldintza duinak
a taille humaine
a escala humana



EKONOMIA SOZIAL

ERALDATZAILEA

social transformative
social transformadora



ehkolektiboa@gmail.com

www.ehkolektiboa.eus

0034 688 86 70 20

Laguntzaileak:





AGRO- EKOLOGIAREN EROSKETA EREDUAK

Euskal Herriko kontsumo talde,
elkarte eta kooperatiben saretzea.

20. mendean, supermerkatuen arrakasta handituz joan da, gaur egun kontsumitzeko ohitura nagusi izatera iritsiz. Duela urte batzuk, produktu ekologikoek beren lekua topatu dute merkatuan eta orain, supermerkatuetan, apalak "hosto berdeaz" betetzen dira, freskoak, transformatuak, etab, eskaintza aberatsarekin. Hala ere, produktu hauen ekoizpenaren atzean, laborantza ekologiko industrial bat senti genezake (etxalde alimalekoak, monokulturak, lan baldintza txarrak, urrunekoak, araudi ezberdinekin...). Azken finean, Euskal Herriarentzat nahi dugun burujabetza eta lurralde garapenetik urrun gelditzen den eredua.

Elikagai agroekologikoen erosketa ereduak aztergai

Horren alternatiba gisa, EHKOlektiboak agroekologia bidean diren Euskal Herriko laborari eta herritarrak saretu nahi dituen elkarteak, 2018 urtean hasi zuen Euskal Herriko kontsumo talde, elkarte eta kooperatiba agroekologikoen arteko hartu-emana eta ekintza kolektiboa indartzeko prozesua. Ikerketa parte-hartzaile bat abiatu zen merkaturatze bide laburrei lotutako kontsumo eredu antolatuek gaur egun Euskal Herrian bizi duten egoera (dimentsio sozial eta ekonomikoa) ezagutzeko helburu zuena.

Ikerketan, Euskal Herrian ditugun merkaturatze bide laburrak karakterizatu dira, eta kontsumo antolatuari lotutako esperientzien azterketa sakona egin da, gaur egun martxan dauden kontsumo elkarte, talde eta kooperatibak ezagutzeko asmoz. Nahiz eta definitutako esperientzia eta sare guztien inguruko datuak jaso ezin izan ditugun, bilaketa honetatik lortu ditugun emaitzak oso aberasgarriak izan dira: 170 kontsumo


taldetik gora eta 16 kontsumitzaile elkarte, guztira 14.000 bat familia barnebiltzen dituztenak Euskal Herri guztian zehar.


Azterketa honek, ekoizpen ekologiko txikiaren eta herritar kontsumitzaileen arteko zuzeneko harremanean oinarritutako merkaturatze eredu anitzen etorkizuneko garapena baldintzatzen duten oinarritzko irizpideak zein diren irudikatzen lagundu du. Paraleloan, esperientziak elkar ezagutzeko bi topaketa aberasgarri egin dira, eta pozik ondorioztatu dezakegu badagoela pixkanaka artikulatzen doan gogo bat, herritarren erosketa gaitasunetik abiatuta Euskal Herriko Agroekologian oinarritutako Elikadura Burujabetzaren bidean lanean jarraitzeko.

Laburpen honetan jaso ditugu, ikerketaren gako nagusiak, jakintzak kolektibizatzen lagunduko duen asmoarekin. Interesatuak txosten osoa duzue eskuragai webgunean:

www.EHKOlektiboa.eus







● Kontsumo taldeak


● Elkartek

● AMAP*

● Kooperatibak

📋 Informazio hau osatzen lagundu gaitzazu

*Laborantza herrikoia sustengatzeko kontsumo talde sarea



Kontsumo-eredu agroekologiko-koen karakterizazioa

Euskal Herriko kontsumo antolatuari lotutako esperientzia gehienak hiri handietan edo biztanle ugari-ko bailaretan daude.

Kontsumo talde eta elkarte-arte-ko desberdinketa egiten dugu. Taldeak, txikiak izan ohi dira, ez dute azpiegitura edo soldapeko langile-rik, eta eskaintzen den produktu gama murriztua da. Elkar-tee-ko berriz, familia kopuru zabalagoa barne-til-zen dute, lokal propioarekin kon-til-zen dute, soldapeko langileak dituzte eta elikagai barietate zabala dute.

ONDORIOAK

Kontsumo antolatuko esperientzi-ko elikagai ekologikoekin lan egiten dute beti, baina aztertutako 14 talde eta elkar-tee-tatik bostek elikagai konben-til-zionalak ere kontsumitzen dituzte. Erabaki horrek tokiko elikagaiak lehe-ntsearen borondateari erantzuten dio. Esan beharra da, talderen batek, euren ekoizle konben-til-zional batzuek ekoizpen ekologiko-ko trantsizio prozesu bat egitea ere lortu dutela.

Barazkien saski itxiak: "betie-ko" eztabaida

Kontsumo talde ia guztiek saski itxi-ekin funtzionatu-zen dute. *A priori*, barazki ekoizpen agroekologiko txiki-entzat onuragarria den eredu- da. Baina baditu zenbait ezaugarri hain "erakargarri" egiten ez dutenak. Hori dela eta, kontsumitzaile elkar- tee handiek eta supermerkatu kooperati- bek denda eredu- a hautatu-zen dute, baina kasu batzuetan bazkideei inguruko baserrietan ekoizturiko saski itxiak lokalean bertan jasotzeko aukera eskaintzen zaie.

Azken urteotan, saski itxi-ko eredu- a krisian sarturik dagoen orokorturiko

sentsazioa zabaldu da. Hala ere, hipotesi hori gezurtatu-zen duten testi- gantzak jaso ahal izan ditugu ikerketa honetan. Datu zehatzago eta sakona- gorik gabe ez da posible saski itxi-ko eredu- a krisian erori denik esatea.

Ziurtagiri ekologiko ofiziale- tik haratago

Ikertutako esperientzia guztiek lan egiten dute elikagai ekologikoekin eta horietako bik bakarrik ziurtagiri- ko gabeko elikagai ekologikoekin. Kon- tsumitzaile elkar-tee-tan erabateko kontsentsua dago elikagai ekologiko guztiek ziurtagiria izan behar dutela.

Ikertutako talde eta elkar-tee-ko ez

dute ziurtagiri parte-hartzailerik garatu, baina badira zigilu ofiziale- tik haratago, ekoizle eta herri- tarren arteko konfiantza oinarritutako harremanak sendotzeko ahaleginak egiten dituztenak. Gehienek, ekoizle batzuen etxalde- eta bisita antola- tzen dituzte, orokorrean ekintza hauen helburua talde kohesioa eta formakuntza bada ere.

Parte-hartzea eta bazkideen profila

Gaingiroki, kontsumo talde txiki-ek kontsumitzaileen elkar-tee-ko baino bazkideen parte-hartze handiagoa eskatu-zen dute. Soldapeko lana eta parte-hartzearen arteko alderantzizko erlazioa dago.

Kontsumo elkar- tee eta kooperatibek lan profesionalaren aldeko apustua egin badute ere, esperientzia guztiak bazkideen borondatezko inplika- zioaren menpe daude: zuzendaritza batzordean eta lan komisiotan dihardutenak, denda-almazenean txandak egiten dituztenak, auzola- nak... talde guztietan bazkide aktibo talde murriztu bat nabari da.



Nabarmentzeko da emakumeek erosketa eredu agroekologiko haue-
tan duten papera: gehienetan ardura
eta ordezkaritza karguak asumitzen
dituzte, soldatapeko langile gehienak
emakumeak dira, zuzendaritza
juntetan emakumeen presentzia
ugaria izaten da... Antolatutako kon-
sumo esperientziak biziki feminiza-
tuta daude.

Bideragarritasuna

Kontsumitzaile elkarteek bideraga-
rritasuna hurrengo elementuen
menpe aurkitzen da: salmenta bolu-
mena, urteko kuotak eta boronda-
tezo lana. Urteko kuotaren presen-
tziak prezioei erantsitako marjinaren
murrizketa ahalbideratzen du. Modu
honetan, elkarte guztiek, "ohiko"
merkaturatze bideek baino marjina
baxuagoak ezartzen dituzte. Badirudi
kontsumo elkarteak, beren tamaina
edozein izanda ere, prekaritate eko-
nomiko eta laboralaren mugan
mugitzen dira.

Erlazio zuzen bat aurkitu dugu
produktu aniztasuna eta proiektuen
bideragarritasunaren artean: familia
batek bere elikadura beharrak
taldean edo kontsumo elkartearen
asebete ditzakeen heinean, proiektu-
a interesgarriagoa eta gogobeteg-
arriagoa izango da. Hala ere, bazki-
deen eskaera guztiak asetzeko
saiakean, sarritan, ezarritako eroske-
ta-irizpideekin bat ez datozen
produktuak jartzen dira salgai.

Ekoizleekiko harremana

Kontsumo taldeek ia produktu
guztiak eskuratzen dituzte zuzenean
ekoizleengandik, bitartekaririk gabe.
Kontsumitzaileen elkarteek, ordea,
zailtasun gehiago dauzkate harre-
man horiek mantentzeko. Bereziki,
barazki eta frutaren kasuan. Ekoizle
agroekologiko txikiek, beren banake-
ta-bide propioak izanik, kontsumi-
tzaileen elkarte handiak bigarren
mailako merkaturatze-bidetzat

dituzte.

Ziurrenik, kontsumitzaile elkarte
handiak barazkiz hornitzea eskain-
tzaren antolaketatik pasatzen da
(landaketen plangintza bateratua,
logistika elkar banatua, salneurri
adostuak, fakturazio bateratua).
Aztertutako elkarte gehienek eskari
horiek argiki adierazten dizkiote
bertoko ekoizpen-sektore agroeko-
logikoari.

Kontsumo antolatuko espe- rientziak, egungo testuin- guruan

Kontsumo antolatuko experien-
tziak alternatiba argia dira ekologiko-
ki jasangaitza eta sozialki bidegabea
den elikadura sistemaren aurrean.

Kontsumo taldeen eztanda pasatu
dela esan genezake. Aldiz, supermer-
katu kooperatiboen eredia indartzen
ari dela dirudi. Ereditu bakoitzaren
ahalmen zein ahuleziez haratago,
proiektu hauek guztiak etengabeko
aldaketa azkarrean dagoen eszena-
toki berari aurre egin behar diote.
Testuinguru berri honetan, komuni-
katzeko gaitasuna ezinbestekoa da
salerosketa hutsetik haratago joan
nahi duten proiektuentzat, euren
berezitasunak argi nabarmen ditza-
ten.

Eszenario honen aurrean, kontsu-
mo agroekologikoan oinarritutako
esperientzien arteko kooperazio lana
garrantzitsua izan daiteke. Izan ere,
aurkitu ditugu elkarlanean ematen
diren zenbait iniziatiba: saskien
banaketarako espazio partekatuak,
talde berriak sortzeko prozesuetan
eskainitako laguntza, edo eskaera
bateratuak egiteko aukerak.

Prozesu horretan, komenigarria
izango litzateke kontsumo-talde zein
elkarteek tokiko sektore agroekologi-
koarekin loturak eta sinergiak
sendotzea, aurrean duten erronka
partekatua delako.

